



UNITATE SUSTATAILEA	Kirolak
XEDEA	Kirol jarduera bereziak antolatzeko dirulaguntzen oinarri arautzaileen eta deialdiaren onarpena (2025).
ORDEZKARIA	
TITULARRA	Tolosako Udala

ALKATETZA DEKRETUA

ANGEL MARTINEZ DE RITUERTO ARREGUI Tolosako Udaleko alkate-udalburuarena, bat etorrira Toki-Araubidearen oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legearen 21.1 artikuluan ezarritakoarekin

IKUSIRIK

LEHENA.- Tolosako Udalbatzak, 2017ko apirilaren 25ean egindako Osoko Bilkuran, Tolosako Udalaren Dirulaguntzen Ordenantza Orokorra (aurrerantzean, DOO) onartu zuela; ondoren, bi aldaketa izan ditu: bata, GAO, 68 zk., 2023-01-26an argitaratua, eta bestea, GAO, 89 zk., 2024-05-09an argitaratua.

BIGARRENA.- Tolosako Udalaren Dirulaguntzen 2023-2025 Plan Estrategikoan honako dirulaguntza lerroa sartua dago: Kirol jarduera bereziak antolatzeko dirulaguntzak. Plan hori Udalbatzak onartu zuen 2022ko abenduaren 15ean (GAO, 21. zk., 2023-02-01).

HIRUGARRENA.- Dirulaguntza-deialdirako 10.000 euro euroko zenbatekoa finkatu da, 2025ko udal aurrekontuaren 1000.481.03.341.00 partidan.

LAUGARRENA.- Alkateak, 2025-02-04 emandako Probidentzian, **kirol jarduera bereziak antolatzeari** buruzko dirulaguntzen oinarri arautzaileak eta deialdia egiteko espedienteari hasiera ematea agindu zuen.

BOSGARRENA.- Kirolak Saileko arduradunak proposamen teknikoa luzatu du aipatu dirulaguntzaren oinarri arautzaileak eta deialdiaren espedienteari hasiera emateko.

SEIGARRENA.- Horren ostean, dagokien sailek eta azpisailek (Berdintasunak, Euskarak, Kontu-hartzaileak eta Idazkaritzak) euren txostenak igorri dituzte, honako ondorioekin:

Egileak	Aldekoa / Kontrakoa / Baldintzatua	Oharra			
Berdintasuna	BALDINTZATUA	2025eko	deialdietan	eta	oinarri



		arautzaileetan ez da agertzen Tolosako Udalaren Dirulaguntzen Ordenantza Orokorraren 7.3. artikulua (Dirulaguntzak emateko baldintzak). Hala ere, 7.3 artikulua hori osorik agertzen ez bada ere, oinarri honetan 12. artikuluan (Pertsona/entitate onuradunen betebeharrak eta konpromisoak) jasotzen da. Beraz, derrigorrezkotzat jotzen da, 7.3. artikulua Ordenantza orokorrean azaltzen den bezala, oinarri arautzaileetan osorik txertatzea. Eta horrela txertatzea: Era berean, ezinbesteko baldintza izango da agiri, irudi edo material guztiek hizkuntzaren erabilera ez[1]sexista baliatzea, estereotipo sexistak edo emakumeen bereizkeria eragin ditzaketen irudi oro saihestea eta honako balio hauek sustatzea: berdintasuna, presentzia orekatua, aniztasuna erantzukidetasuna, eta genero-eginkizunen eta identitateen aniztasuna.
Euskara	ALDEKOA	
Juridikoa	BALDINTZATUA	- Oinarri eta deialdi proposamenean aldaketak egitea. - Txosten teknikoa zuzentzea.
Kontuhartzailatza	BALDINTZATUTAK O ALDEKOA	Txostenean adierazitako aldaketak egin beharko lirateke.

ZAZPIGARRENA.- Txosten horietan adierazitako alderdi guztiak kontuan izan ditu Kirolak Sailak eta dagozkion zuzenketak egin ditu.

KONTUAN HARTURIK

LEHENA.- Apirilaren 7ko Euskadiko Toki Erakundeei buruzko 2/2016 Legeak 17.1 artikuluan jasotzen du udalerriko eskumen propioen artean daudela: 19) Kirola eta kirol-jarduerak antolatzea eta sustatzea, eta erabilera publikoko kirol-ekipamenduak kudeatzea.

BIGARRENA.- Dirulaguntzei buruzko Lege Orokorrak, azaroaren 17koak, 38/2003,



(aurrerantzean, DLO) 9.2 artikuluan ezartzen du: «dirulaguntzak eman aurretik, emakidaren oinarri arautzaileak onartu beharko dira, lege horretan ezarritakoaren arabera».

Horren haritik, Auzitegi Gorenaren Administrazioarekiko Auzien Salaren 1873/2017 Epaiaren arabera, lehiaketa-deialdien eta horien oinarrien araubide juridikoa ez da zeharkako aurka egitea ahalbidetzen duen xedapen orokor bat; izan ere, administrazio-egintza bat baino ez da, zehaztu gabeko interesdun-multzo bati zuzendua, legezko eta erregelamenduzko arau zehatzen eta berezien aplikazio zehatz eta bakanekoa, iraupen handia ez duenez ordenamendu juridikoan integratzen ez dena.

Beraz, oinarrien egintza-izaera ez da xedapen orokor bat, administrazio egintza bat baizik.

HIRUGARRENA.- DLOren 22.1 artikularen arabera, «**dirulaguntzak emateko ohiko prozedura** norgehiagoka-erregimenean izapidetuko da. Lege honen ondorioetarako, norgehiagokatzat hartuko da aurkeztutako eskabideak alderatuz dirulaguntzak emateko prozedura, oinarri arautzaileetan eta deialdian aldeztutako aurretik finkatutako balorazio-irizpideen araberrako hurrenkera ezartzeko, eta irizpide horiek aplikatuta baloraziorik handiena lortu dutenak esleitzeko, erabilgarri dagoen kredituaren barruan deialdian ezarritako mugarekin».

Salbuespen gisa, eta oinarri arautzaileetan hala aurreikusten baldin bada, organo eskudunak dirulaguntzaren onuradunen artean hainbanatuko du dirulaguntzei bideratutako gehieneko kopuru osoa.

Ezin daiteke eman deialdian zehaztutako kopurua gainditzen duen dirulaguntzarik.

LAUGARRENA.- Era berean, DLO 17.3 artikuluan adierazten dira dirulaguntzen oinarriek gutxienez jaso beharreko alderdiak zeintzuk diren. Atal horietaz gain, DOOean 19. artikuluan zehazten dira aurreko artikuluan aipatutakoei erantsi beharreko alderdiak. Horiek guztiak, lege-txostenean xedatu bezala, espedienteetan jasotzen dira.

BOSGARRENA.- DLOeko 8. artikuluan xedatutakoa kontuan izanda, dirulaguntza lerro hau honako arrazoiengatik jotzen da intereskotzat:

Dirulaguntzaren xedea:	Kirol jarduera bereziak antolatzeako dirulaguntza
Dirulaguntzarekin espero diren emaitzak:	Herriko kirol-elkarte, pertsona edo bestelako erakundeei herritarren interesekoak diren ekimenak sustatu eta antolatzen lagunduz, Tolosako kirol-ikuskizunaren eskaintza areagotzea eta eskualde zein lurralde mailan



	erreferentzizko herri bilakatzea. Finean, herriaren muskulua ikustaraztea eta kohesio soziala areagotzea garrantzitsua delako.
Dirulaguntzaren beharraren justifikazioa:	Kirol jarduera bereziak eta proiektuak gauzatzearen kostea diruz laguntzeaz gain Udalak elkartegintza saretzen ahaleginak egiten dituzten eragileei babesa eskaini nahi die zeharkako nahiz laguntza zuzenen bidez.

SEIGARRENA.- Dirulaguntzei buruzko Ordenantza Orokorraren 14.3 artikuluan dirulaguntzen bateragarritasunari edo bateraezintasunari buruzkoa da. Zehazki, honako hau jasotzen da: oro har, eta oinarri arautzaileetan adierazitakoari kalterik egin gabe, deialdian, hitzarmenean edo emakida-ebazpenean, oinarri hauen arabera ematen diren dirulaguntzak bateragarriak izango dira helburu bererako beste dirulaguntza, laguntza, diru-sarrera edo baliabide batzuekin, baldin eta edozein administrazio edo erakunde publiko nahiz pribatutatik, Europar Batasunetik edo nazioarteko erakundeetatik badatoz, beste dirulaguntza konkurrente batzuk arautzen dituen araudiak horri buruz ezartzen duenari kalterik egin gabe.

ZAZPIGARRENA.- Oro har, oinarri arautzailean eta deialdian, xedatzen denari kalterik egin gabe, Tolosako Udalaren Dirulaguntzen Ordenantza Orokorrarekin bat etorrita ematen diren dirulaguntzak bateragarri izango dira helburu bereko beste dirulaguntza, laguntza, sarrera edo baliabide batzuekin, edozein administrazio edo entitate publiko edo pribatu nazionalatik, Europar Batasunetik edo nazioarteko erakundeetatik datozenak, kalterik egin gabe beste dirulaguntza horien araudiak horri buruz agindu dezakeenari. Gerta daitezkeen aldi bereko finantzaketa kasuetan honako baldintza hauek bete behar dira:

Emandako dirulaguntzaren zenbatekoak ezin du inola ere gaintitu, beste dirulaguntza, laguntza, sarrera edo baliabide batzuekin batera, diruz lagundutako proiektu edo jardueraren kostua. Muga hori betetzen dela egiaztatzeko, egindako gastu osoa justifikatu behar da eta justifikatzeko kontuak jaso behar du diruz lagundutako jarduera finantzatu duten beste sarrera edo dirulaguntzen zerrenda zehatz bat, zenbatekoak eta haien jatorria adierazita daudela

Finantzazioan soberakin bat gertatuko balitz proiektu edo jardueraren kostuarekiko, onuradunak itzuli egin beharko du, berandutze-interesekin batera, dagokion justifikazioari ordainketagutunak erantsita. Soberakina itzuliko zaie dirulaguntzak eman dituzten entitateei, entitate horietako bakoitzak emandako dirulaguntzen proportzioan. Hala ere, baldin eta Tolosako Udala bada finantzaketa-soberakinaz ohartu dena, eskatuko du soberakinaren zenbateko osoa itzultzeko, berak emandako



dirulaguntzaren mugaraino.

ZORTZIGARRENA.- Oinarri arautzaileek DLOren 17.3 artikuluan ezarritako edukia izan behar du ezinbestez, eta deialdiak berriz DLOren 23.2 artikuluan eta DOOren 19. artikuluan ezarritakoa. Gainera, DLOren 18. eta 20. artikuluetan aurreikusitako publizitate- eta gardentasun-betebeharrak betetzeko, argitaratu beharko da Dirulaguntzen Datu Base Nazionalean (DDBN - BDNS), zeinak dirulaguntza eta laguntza publiko guztien deialdiak argitaratuko dituen.

BEDERATZIGARRENA.- Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legean 21.1.f) artikuluan ezarritakoaren arabera, eta indarreko legeak emandako eskumenak baliatuz, alkateari dagokio onartutako aurrekontuaren arabera kudeaketa ekonomikoa garatzea, bere eskumeneko muga barruan gastuak xedatzea.

Aipatutako guztia aintzat hartuta, Alkate honek honako hau

E B A Z T E N D U

LEHENA.- Kirol jarduera bereziak antolatzeko dirulaguntzen oinarri arautzaileak onartzea, testu honen arabera:

3. Lerroa: 2025eko Oinarri arautzaileak kirol jarduera bereziak antolatzeko.

1. Dirulaguntzaren xedearen definizioa

Oinarri hauen xedea da arautzea irabazi-asmorik gabeko pertsonen eta kirol-entitateen Tolosan 2025ean kirol-jarduera bereziak antolatzeko dirulaguntzak, lehia bidezko konkurrentzian ematen direnak.

2. Dirulaguntzen Plan Estrategikoan txertatzea

Dirulaguntza lerro hau Tolosako Udalaren Dirulaguntzen 2023-2025 Plan Estrategikoaren barruan dago. Plan hori Udalbatzak onartu zuen 2022ko abenduaren 15ean (2023ko otsailaren 1eko GAO, 21. zk.).

3. Pertsona edo entitate onuradunak

Entitate onuradun (aurrerantzean, onuraduna) izan ahalko dira pertsonak (fisikoak eta juridikoak) zein irabazi-asmorik gabeko kirol-klubak eta -taldeak, oinarri hauetan eta dagokien deialdian ezarritako baldintzak betetzen badituzte.

4. Pertsona eta entitate onuradunek dirulaguntza jasotzeko bete beharreko baldintzak

Hona hemen pertsona eta entitate onuradunek bete beharreko baldintza orokorrak:

Zerga-betebeharrak eta Gizarte Segurantzarekikoak beteta izatea.

Betearazte-aldian Tolosako Udalarekin zerga-zorrik edo -zehapenik ez izatea, non eta ez dauden geroratuta, zatikatuta edo betearazpena etenda.



Ez egotea Dirulaguntzei buruzko 38/2003 Lege Orokorraren 13. artikuluan adierazitako kasuren batean.

Ez izatea administrazio-, lan- edo zigor-zehapen irmorik dagokion zehapenean ezarritako aldi berdintasunerako eskubidea eta sexuagatiko diskriminaziorik eza urratzeagatik, ez izatea Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako eta Indarkeria Matxistatik gabeko Bizitzetarako Legearen testuategina onartzen duen martxoaren 16ko 1/2023 Legegintzako Dekretuan ezarritako debekurik, ez eta araudi aplikagarrietan ezarritako bestelako kausarik ere.

Ez egitea emakumeen edo emakume-taldeen sexuagatiko diskriminazioa edo diskriminazio anizkoitzeko faktoreak eragiten dituzten jarduerak, diskriminazio-egoerak eragin ditzaketen beste faktore batzuk gertatzen direnean, hala nola arraza, kolorea, jatorri etnikoa, hizkuntza, erlijioa, politikari edo bestelako gaiei buruzko iritzia, gutxiengo nazional bateko kide izatea, ondarea, jaioterria, desgaitasuna, adina, sexu-joera, genero-identitatea, genero-adierazpena, migrazio-prozesua, errefuxiatu-estatusa, kultura, landa-jatorria, gizarte-bazterketako egoera, seropositibitate-egoera, guraso bakarreko familia, familia-konfigurazioa edo beste edozein baldintza edo inguruabar pertsonal, sozial edo administratibo

Hona hemen onuradunek bete beharreko baldintza espezifikoak:

Diruz lagundutako jarduerak bat etorri behar du Udalaren kirol-politikarekin.

Elkarteei dagokienez, Elkarteen Erregistroan inskribatuta egon behar dute.

Jarduerak 1.500 eurotik gorako gastu-aurrekontua izan behar du.

Gipuzkoan eskola-kirolari buruz indarrean dagoen araudian ezarritakoa bete behar da.

5. Dirulaguntzak emateko prozedura

Lehia bidezko prozedura erabiliko da, deialdi eta hautaketa-prozedura bakarraren bidez.

Prozedura ofizioz hasiko da deialdi publiko bidez, organo eskudunak onartuta eta Dirulaguntzen Datu Base Nazionalean (BDNS) eta Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratuta.

Prozedura honen bidez, dirulaguntzak emateko, oinarri hauetan ezarritako irizpideen arabera ebaluatzen dira aurkeztutako eskaerak.

6. Diruz lagun daitezkeen gastuak

Dirulaguntza jaso dezaketen gastutzat hartzen dira baldintza hauek betetzen dituztenak: batere zalantzarik gabe lagundutako jardueraren izaerarekin bat etortzea; deialdian ezarritako epearen barruan egitea; eskuraketa-balioa merkatuko balioa baino handiagoa ez izatea; eta justifikatzeko epea bukatu aurretik egiaz ordaintzea.

Hauek dira diruz lagun daitezkeen gastuak:

- Pertsonal-gastuak.
- Langileen gastuak honako hauen bidez egiaztatu ahal izango dira:
- Nominak, edo nomina programatik lortzen den langileko urte osoko laburpena,



biak sinatuta.

- TC1 eta TC2.
- 190 eredua.
- 190 eredua aurkeztuz justifikatzen bada, urteko gastu totala zein den zehazteaz gainera, langile bakoitzari dagokion gastua zehaztua azaldu beharko du.
- Aseguruak.
- Jarduerako parte-hartzaileen dietak.
- Joan-etorriak
- Publizitatea.
- Kirol-materiala.
- Kirol-jarduerarekin loturiko beste zerbitzuak (komunikazioa, segurtasuna, garbitasuna).

Diruz lagun daitekeen gastuaren zenbatekoa, obra-exekuzioaren kostuari dagokionez, 40.000 eurotik gorakoa bada (BEZa sartu gabe), edo aholkularitza edo asistentzia teknikoko enpresek egindako ondasun-horniketa edo zerbitzu-prestazioen kasuan 15.000tik gorakoa bada (BEZa sartu gabe), onuradunak, gutxienez, hiru eskaintza eskatu behar dizkie hiru hornitzaileari, zerbitzu-prestazio edo ondasun-horniketarako konpromisoa onartu baino lehen. Hau da salbuespena: diruz lagun daitezkeen gastuen ezaugarri bereziengatik, merkatuan ez egotea behar adina entitate dagokion horniketa egiteko edo zerbitzua emateko, edo gastua dirulaguntza-eskaera egin baino lehen eginda egotea, eta agiri bidez hala egiaztatzea.

Eskatu diren hiru eskaintza horiek aurkeztu egin behar dira justifikazioa egiterakoan edo, hala badagokio, dirulaguntzaren eskaeran, eta haien arteko hautaketa eraginkortasun-eta ekonomia-irizpideen arabera egin behar da. Hala, aukeratutako eskaintza ez bada ekonomikoki onena, txosten batean justifikatu beharko da hautaketa hori.

Ez dira, inolaz ere, diruz laguntzeko gastuak izango hauek:

- Ez da onartuko bazkarien, afarien edota ostalaritzako zerbitzuen kosturik, ez badute harreman zuzena klubaren kirol-jarduera zehatz batekin eta gastua jardueraren parte-hartzaileek eragindakoa ez bada. Gastu horiek modu egokian justifikatu beharko dira, dagokion kirol jarduerari atxikiz.
- Banku-kontuetako interes zordunak.
- Interesak, errekarquak eta zehapen administratibo eta penalak.
- Prozedura judizialek eragindako gastuak.
- Zeharkako zergak, errekuaragarriak edo konpentsagarriak izan badaitezke.
- Errentaren gaineko zerga pertsonalak.
- Entitate onuradunaren ondasun inbentariagarrien amortizazio-gastuak, jarduera



garatzeko erabiltzen badira (salbu eta Dirulaguntzei buruzko Lege Orokorraren 31.6 artikuluko baldintzak betetzen badira).

7. Eskaerak aurkezteko modua eta lekua

Oinarri hauek eta deialdia Dirulaguntzen Datu Base Nazionalan (BDNS) eta Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean (GAO) argitaratuko dira.

Pertsona fisikoek eskaerak eta gainerako dokumentazioa Tolosako Udalaren egoitza elektronikoaren bidez aurkeztu ahal izango dituzte (<https://udala.tolosa.eus/es>), tramiteen ataritik dagokion dirulaguntza-lerrora sartuta. Bestela, aurrez aurre aurkez ditzakete, herritarrei arreta eskaintzeko bulegora etorrita (UDATE, Plaza Zaharra 6B), bai eta Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 16.4 artikuluan aurreikusitako edozein bide erabiliz ere.

Pertsona juridikoek, nortasun juridikorik gabeko entitateek eta Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 14.2 eta 14.3 artikuluetan zehaztutako beste batzuek telematikoki aurkeztu beharko dituzte eskaerak, Tolosako Udalaren egoitza elektronikoaren bidez.

8. Eskaerarekin batera aurkeztu beharreko dokumentazioa

Udalak emandako eskaera-orri normalizatua. Udalaren egoitza elektronikoan sartu, https://uzt.gipuzkoa.eus/WAS/AYTO/USCServicioCiudadanoVer15WEB/home.do?De=E_U07112886. Eskaera-orri hori entitate eskatzailea ordezkatzeko legezko gaitasuna duen pertsonak sinatu beharko du.

Eskaera-orrian, hauek adierazi behar dira:

1. Erantzukizunpeko adierazpena, aplikatzekoa den araudiaren arabera dirulaguntzak lortzeko debekurik ez duela adierazten duena.
2. Erantzukizunpeko adierazpena, beste sail, instituzio, erakunde eta abarretan egindako dirulaguntza-eskaerak edo, hala badagokio, jarduera edo helburu bererako eman zaizkionak jasotzen dituen.
3. Ordezkaritza-agiria, hala badagokio.
4. Jarduera-proiektua edo programa (DKJB-PRO-00 inprimakia), besteak beste honako hauek adierazita:
 - a) Jardueraren hedapenerako euskararentzat aurreikusitako tratamendua.
 - b) Genero-ikuspegiaren eta ikuspegi intersektzionalaren tratamendua proiektuan, eta berdintasun-helburuen presentzia, aldeztu aurreko egoera diferentzialaren arabera, hala badagokio.
5. Jarduerak izango dituen gastu eta diru-sarreraren aurreikuspena (inprimaki bera).
6. Jardueraren aseguruaren egiaztagiria.

Agiriak kontsultatzearen aurka egin bada:

7. Gipuzkoako Foru Aldundiko Ogasunari eta Gizarte Segurantzari ordaindu beharrekoak ordainduta dituela egiaztatzen duen agiria.



8. Tolosako Udalari ordaindu beharrekoak ordainduta dituela egiaztatzen duen agiria.
9. Kontu korrontearen titulartasunaren ziurtagiria.
10. IGAERI BDNSn dirulaguntzak eta laguntzak eskuratzeko inhabilitazioaren agiria.

9. Dokumentazio elkarreragilea eta egiaztagarria

Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legeak 28. artikuluan aitortzen du herritarrek eskubidea dutela Tolosako Udalaren esku dauden dokumentuak ez aurkezteko.

Ondorio horietarako, pertsona edo erakunde interesdunak adierazi beharko du noiz eta zer administrazio-organoren aurrean aurkeztu zituen dokumentu horiek, betiere 5 urte baino gehiago igaro ez badira dagokien prozedura amaitu zenetik, Dirulaguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorraren 23.3 artikulua arabera, eta organo instrukzio-egileak eskatu beharko ditu, salbu eta prozeduran jasota badago pertsonaren/erakundearen berariazko aurkakotasuna, edo aplikatzekoa den lege bereziak berariazko adostasuna eskatzen badu.

Era berean, herritarrei aitortzen zaie edozein Administrazio eginiko dokumentuak ez aurkezteko eskubidea. Tolosako Udalak dokumentu horiek kontsultatu edo eskuratu ahal izango ditu NISAE elkarreragingarritasun-nodoaren bidez. NISAE euskal sektore publikoko administrazio eta erakunde guztiek erabiltzen duten plataforma da, datu elektronikoak administrazio batzuen eta besteen artean partekatzeko nodo autonomikoa, hain zuzen.

Pertsona/entitate eskatzaileek berariaz adierazi ahal izango dute ez daudela ados dokumentuak egiaztatzearekin; horrelakoetan, haiek aurkeztu beharko dituzte dokumentuak.

Illo horretan, dirulaguntza lerro honetarako, honako baldintza hauek egiaztatuko dira NISAE bitartekaritzarako edo sarbide publikorako plataforma korporatiboen bidez:

- Gipuzkoako Foru Aldundiko Ogasunari eta Gizarte Segurantzari ordaindu beharrekoak ordainduta dituela egiaztatzen duen agiria.
- IGAERI BDNSn dirulaguntzak eta laguntzak eskuratzeko inhabilitazioaren agiria.
- Tolosako Udalari ordaindu beharrekoak ordainduta dituela egiaztatzen duen agiria.
- Kontu korrontearen titulartasunaren ziurtagiria.

Salbuespenez, instrukzio-organok ezin baditu aurreko paragrafoetan aipatutako agiriak eskuratu, berriz eskatu ahal izango dio pertsona/entitate eskatzaileari aurkez ditzala.

Besterik ezean, prozedura bideratu eta ebazteko ardura duen organo eskudunak eskatu ahal izango du aurkeztutako eskaera behar bezala ebaluatu eta ebazteko beharrezkotzat jotzen duen dokumentazio eta informazio osagarri guztia.

10. Akatsak zuzentzea eta dokumentazio osagarria



Prozedura hasteko eskaeran ez badira betetzen deialdian ezarritako baldintzak, interesdunari hamar eguneko epea emango zaio, jakinarazpena egin eta hurrengo egunetik zenbatzen hasita, akatsa zuzentzeko edo aurkeztu ez dituen nahitaezko agiriak aurkez ditzan. Era berean, adieraziko zaio, eskatutakoa egiten ez badu, eskaeran atzera egin duela ulertuko dela. Horretarako, ebazpena emango da, Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 68. artikuluan ezarritakoarekin bat etorrita.

11. Balorazio-irizpideak eta puntuazioak

Proiektuek, gehienez, 221 puntu eskuratu ahal izango dituzte, irizpide hauen arabera:

- a) Jardueren urteurrena: gehienez, 100 puntu.
 - b) Antolaketarako baliabideak: gehienez, 50 puntu.
 - c) Osasun-asistentzia: gehienez, 5 puntu.
 - d) Kirol-maila: gehienez, 10 puntu.
 - e) Parte-hartzaileak: gehienez 40 puntu.
 - f) Autofinantzaketa: gehienez, 8 puntu.
 - g) Bertako kirola: gehienez, 2 puntu
 - h) 2023ko martxoaren 16ko 1/2023 Legegintzako Dekretuak onartzen du emakumeen eta gizonen berdintasunerako eta emakumeen aurkako indarkeria matxistarik gabe bizitzeko Legearen testu bategina Legegintzako Dekretu horren 23.3.b) artikuluan ezarritakoa betez, gehienez 6 puntu.
1. Egoera zailean dauden gizarte-taldeak edo gizarte-bazterkeria jasateko arriskuan daudenak gizarteratzeko eta integratzeko berariazko jarduerak, 3 puntu.
 2. Berdintasunaren, presentzia orekatuaren, aniztasunaren, erantzunkidetasunaren eta genero-rolen eta -identitateen aniztasunaren balioak sustatzen dituzten berariazko ekimen, praktika eta ekintza positiboak, 3 puntu.

Proiektuek, dirulaguntza eskuratu ahal izateko, gutxienez 10 puntu eskuratu beharko dituzte.

12. Dirulaguntzaren zenbateko indibidualizatua zehazteko irizpideak

Ebaluatzeko adierazleak honela puntuatuko dira:

- Kirol-jardueren urteurrenak:

25. urteurrena: 10 puntu.

50. urteurrena: 20 puntu.

75. urteurrena: 50 puntu.

Mendeurrena: 100 puntu.

Baloratuko da, beti ere, entitateak kirol-jarduerako proiektu berezia eta aurreko edizioetatik ezberdina aurkezten badu urteurrenaren harira.

- Antolaketarako baliabideak (pertsonak, logistika):



20 pertsona bitarte: 5 puntu

21-50 pertsona artean: 15 puntu.

51-100 pertsona artean: 30 puntu.

100 pertsona baino gehiago: 50 puntu.

- Osasun-asistentzia, anbulantzia bat baino gehiagorekin eta beste dotazio motorizatu batzuk behar direnean:

Egun erdia: 2 puntu.

Egun osoa: 5 puntu.

- Kirol-maila:

Lurralde-mailako txapelketa: 2 puntu.

Euskadiko txapelketa: 5 puntu.

Espainiako txapelketa: 10 puntu.

- Parte-hartzaileen kopurua:

501-1.000 artean: 40 puntu.

251-500 artean: 20 puntu.

101-250 artean: 10 puntu.

51-100: 3 puntu.

50 edo gutxiago: 0 puntu.

- Autofinantzaketa:

Diru-sarrera guztien % 20-40 artean: 2 puntu.

Diru-sarrera guztien % 41-50 artean: 4 puntu.

Diru-sarrera guztien % 51 edo gehiago: 8 puntu.

- Bertako kirolaren inguruko jarduera:

Bertako kirolaren inguruko jarduera bada: 2 puntu.

- Balio erantsia:

Gehienez ere beste 6 puntu gehitu daitezke, baldin jarduerak ekintza positibo koherenterik baldin bada Udalaren zeharkako politikarekin, ondorengo gaitan:

Hasiera batean, banatu beharreko guztizko zenbatekotik 600 euro arte kenduko dira lurraldeko edo erkidegoko herri-lasterketa herrikoietan parte hartzen duten tolosarren garraio publikoko joan-etorrien gastuaren zati bat finantzatzeko ekimena duen erakunde eskatzailearentzat.

Klub bakoitzeko ekitaldi batera joatea diruz lagunduko da (joan-etorriko kostua). Laguntza ez da izango zerbitzuaren kostu osoaren % 40 baino handiagoa, betiere



aurkeztutako defizitaren arabera, eta, nolana ere, gehienez 200 euro lasterketako.

Soberakinik geratzen bada, banatu beharreko guztizko kopurura itzuliko da.

Aurkeztutako proiektuei dagokien zenbatekoa deialdirako erabilgarri dagoen kreditua baino handiagoa bada, onartutako eskaera guztien artean hainbanatuko da.

Proiektu-jarduera aurkeztutako gastuaren % 60rekin lagundu ahal izango da diruz, eta, edozein kasutan, Udalaren dirulaguntza ez da 5.000 euro baino handiagoa izango eskatzaile bakoitzarentzat.

Puntuaren balioa zehazteko, eragiketa hau egingo da: atal honetako dirulaguntzen guztizko zenbatekoa zati onartutako eskaera guztiei esleitutako puntu-kopurua. Dirulaguntza-eskaera bakoitzak eskuratutako puntuen batura izango da, lehen aipatutako mugak kontuan izanda.

Era berean, dirulaguntzaren zenbatekoa finkatzeko, aurkeztutako aurrekontuaren defizita hartuko da aintzat.

13. Pertsona eta entitate onuradunen betebeharrak eta konpromisoak

Euskaraz edo bi hizkuntza ofizialetan idatzi eta ezagutarazi beharko ditu –euskarari lehentasuna emanda– diruz lagundutako jardueran argitaratzen dituen idatzi, iragarki, ohar eta gainerako komunikazioak, eta publizitatearekin ere, ahozkoa zein idatzia izan, berdin jokatu beharko du. Halaber, ekitaldi jakinetan megafoniaz igorritako mezuak euskaraz edo bi hizkuntza ofizialetan eman beharko dira. Betebehar hori bete izana diruz lagundutako jarduera egin dela justifikatzerakoan

Ezinbesteko baldintza izango da agiri, irudi edo material guztiek hizkuntzaren erabilera ez-sexista egitea, estereotipo sexistak edo emakumeen bereizkeria eragin dezaketen irudi oro saihestea, eta honako balio hauek sustatzea: berdintasuna, presentzia orekatua, aniztasuna, erantzukidetasuna, eta genero-eginkizunen eta identitateen aniztasuna.

Diruz lagundutako jarduera finantzatzen duten beste dirulaguntza, laguntza, diru-sarrera edo baliabide batzuk lortuz gero, horren berri eman beharko zaio dirulaguntza ematen duen organoari edo entitate laguntzaileari.

Betebehar espezifikoak:

Emakumeen eta gizonen tratua- eta aukera-berdintasuna sustatzea, klubak edo entitateak sustatzen duen kirolari eta jarduerari lotuta.

Oro har, dirulaguntzak arautzen dituen araudian jasotako beste edozein.

14. Bateragarritasuna edo bateraezintasuna helburu bererako beste dirulaguntza, laguntza, diru-sarrera edo baliabideekin, edozein dela ere haiek ematen dituen administrazioa, erakunde publiko nahiz pribatua, izan Estatukoa, Europar Batasunekoa edo nazioartekoa

Dirulaguntza hauek bateragarriak izango dira helburu bererako beste dirulaguntza, laguntza, diru-sarrera edo baliabide batzuekin, edozein dela ere haiek ematen dituen estatuko, Europar Batasuneko edo nazioarteko administrazioa edo erakunde publiko nahiz pribatua, eta hargatik eragotzi gabe horren inguruan beste dirulaguntzak arautzen



dituzten araudiek ezar dezaketena.

Dirulaguntzaren zenbatekoak ezin izango du, inolaz ere, gainditu diruz lagundutako jardueraren kostua, ez bakarrik, ez eta beste dirulaguntza, laguntza, diru-sarrera edo baliabideekin batera ere.

Muga hori ez dela gainditu egiaztatzeko, diruz lagundutako gastu osoa justifikatu beharko da.

Proiektuaren edo jardueraren kostua baino gehiago finantzatzen bada, onuradunak itzuli egin beharko du, berandutze-interesekin batera, eta ordainketa-gutunak dagokion justifikazioari erantsi beharko dizkio.

Hala ere, Tolosako Udalak gehiegizko finantzaketa ikusten duenean, gehiegizko zati horren zenbateko osoa itzultzeko eskatuko du, Udalak emandako dirulaguntzaren mugaraino.

15. Dirulaguntza ordaintzea.

Dirulaguntza ordaintzeko, onuradunak eskaeran egindako aukeraren arabera, bi modu izango dira.

1. Eskatzaileak baliabide aski izan ez, eta aurrerakina jasotzeko aukera markatu bada, dirulaguntzaren % 75 ordainduko da ebazpenaren unean da. Gainerako % 25a ordainduko da justifikazioa aurkeztu, eta organo eskudunak onartzen duenean.
2. Baliabide aski izan eta aurrerakinik jasotzeko beharrik ez izatea markatu bada, dirulaguntzaren %100 organo eskudunak justifikazioa ontzat ematean ordainduko da.

15. Dirulaguntzaren justifikazioa.

Onuradunak justifikatu beharko du egin duela dirulaguntza jaso duen jarduera; baita jarduera horrek sortutako gastuak ere.

Justifikaziorako baliagarriak diren agiriak Udalaren egoitza elektronikoan eskura daitezke, dagokion dirulaguntza-lerroan sartuta:
<https://uzt.gipuzkoa.eus/WAS/AYTO/USCServicioCiudadanoVer15WEB/home.do?De=E U07112886>

Dokumentu hauek aurkeztu behar dira 2026ko urtarrilaren 31 baino lehen.

- Dirulaguntza emateko ezarritako baldintzak bete direla justifikatzen duen jarduera-memoria (DKJB Memoria), egindako jarduerak eta lortutako emaitzak adierazita. Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako eta Indarkeria Matxistarik gabeko Bizitzetarako Legearen testuategina onartzen duen martxoaren 16ko 1/2023 Legegintzako Dekretuaren arabera, memorian sexuaren arabera bereizita adieraziko da honako hauei buruzko informazioa: emandako zerbitzuaren azken onuradunak edo erabiltzaileak, titularrak eta langileak, eta dirulaguntza-eskaeraren xedea den zerbitzua emateko erakundeak kontratatutako langileak.

Memorian berariaz jaso beharko da dirulaguntzaren helburua bete dela, eta, hala badagokio, lortutako emaitzen ebaluazioa egin beharko da, lortutakoa aurreikusitakoarekin alderatuta.



- GAS dokumentua, gastuen eta inbertsioen zerrenda sailkatua izango du, eta bertan identifikatuta jarri beharko dira hartzekoduna eta dokumentua, zenbatekoa eta jaulkipen- eta ordainketa-datak. Jatorrizko formatuan aurkeztu behar da dokumentua (.xls), sinadurarik gabe.

Finantzaketa-iturri bat baino gehiago erabili bada, adieraziko da Tolosako Udalak, gastu horri dagokionez, zer ehuneko finantzatu duen.

Dirulaguntza aurrekontu zenbatetsi baten arabera ematen denean, gastuen eta inbertsioen zerrenda diruz lagundutako proiektuaren edo jardueraren partiden arabera ere sailkatuko da, izandako desbideratzeak adierazita.

Gastuaren zenbateko osoak diruz lagundutako proiektu edo jardueraren kostu osoa islatu beharko du.

- BAL dokumentua, diruz lagundutako jardueraren edo proiektuaren gastuen eta diru-sarreraren zerrenda jasoko du, eta proposatutako ereduaren arabera jaso beharko da Entitate onuraduneko presidenteak edo idazkariak sinatu beharko du.

GAS dokumentuko gastuen zenbatekoek bat etorri beharko dute BAL dokumentuko gastuen zenbatekoekin.

*Garraio-gastuak justifikatzeko, klubak, dokumentazioaz gain, ziurtagiri bat aurkeztu beharko du, eta hor adierazi beharko ditu honako datu hauek: bidaia egin duenaren izen-abizenak, NANaren zenbakia, egindako ibilbidea, kilometro-kopurua, bidaiaren arrazoia eta kostua (inprimakia).

- Diruz lagundutako jarduera finantzatu duten beste diru-sarrera edo dirulaguntza batzuen zerrenda zehatza, zenbatekoa eta jatorria adierazita.

- Hiru hornitzailei eskatutako hiru aurrekontuak, baldin eta diruz lagun daitekeen gastuaren zenbatekoak ezarritako zenbatekoak gainditzen baditu. Hau da salbuespena: ezaugarri bereziak izateagatik, merkatuan ez egotea horiek egin, eman edo hornitzen dituen nahikoa entitate, edo gastua dirulaguntza eman aurretik egitea. Inguruabar horiek behar bezala justifikatu beharko dira.

Agiriak kontsultatzearen aurka egin bada:

- Gipuzkoako Foru Aldundiko Ogasunari eta Gizarte Segurantzari ordaindu beharrekoak ordainduta dituela egiaztatzen duen agiria.

- Tolosako Udalarari ordaindu beharrekoak ordainduta dituela egiaztatzen duen agiria.

Dirulaguntzaren justifikazioa aurkezteko «kontu sinplifikatua» modalitatea erabiliko denez, dirulaguntza ematen duen organoak gastu-frogagirien lagin bat aztertuko du, dirulaguntzaren aplikazioa egokia dela egiaztatzeko.

Aipatutako dokumentazioa aurkeztu, eta organo eskudunak errekerimendua egin ondoren, dagokion dokumentazio gehigarria aurkeztu beharko da:

- Fakturak eta merkataritzako trafiko juridikoan froga-balio baliokidea duten edo administrazio-eraginkortasuna duten gainerako dokumentuak, aurreko bigarren puntuan



aipatzen den zerrendan eskumena duen organoak berariaz eskatutakoak.

- Dokumentazio horren ordainketen egiaztagiria.

Onuradunak 10 eguneko epea izango du dagokion dokumentazioa aurkezteko, aipatutako errekerimendua jakinarazpena jaso eta hurrengo egunetik zenbatzen hasita.

Jatorrizko agiri horiek korrelatiboki ordenatuta aurkeztuko dira, zenbakitutako zerrendan esleitutako hurrenkera-zenbakiaren arabera. Gastuaren faktura eta ordainagiri guztiak PDF dokumentu bakar batean aurkeztu beharko dira.

Egiaztatu beharreko elementu kopurua honako muga hauekin kalkulatu da:

1. Emandako dirulaguntzaren zenbatekoaren % 25 gainditzen duten egiaztagiri guztiak egiaztatuko dira.
2. Gainerako egiaztagiriei dagokienez, elementuen lagin bat egiaztatuko da, populazio osoaren elementu kopuruarekiko, gutxienez, ehuneko hau osatzen duena:
 - Frogagiri-kopurua hamar edo txikiagoa bada: 100eko 100.
 - Frogagiri-kopurua hamar baino handiagoa eta hogeiei edo txikiagoa bada: 100eko 70.
 - Frogagiri-kopurua hogeiei baino handiagoa eta berrogeita hamar edo txikiagoa bada: 100eko 40.
 - Frogagiri-kopurua berrogeita hamar baino handiagoa eta ehun edo txikiagoa bada: 100eko 30.
 - Frogagiri-kopurua ehun baino handiagoa bada: 100eko 20.

17. Dirulaguntza aldatzea

Dirulaguntza emateko ebazpena edo erabakia, onuradunak eskatuta, aldatu egin ahal izango da, baldin eta gerora sortutako eta aurreikusi ezin diren inguruabarrek dirulaguntza emateko kontuan hartutako baldintzak aldatzen badituzte, eta betiere, aldaketa horiek ez badituzte indargabetzen emandako dirulaguntzaren izaera eta helburuak, aldaketak ez badie hirugarren pertsonen edo entitateen eskubideei kalterik egiten, eta eskaera jarduera egiteko epea amaitu baino lehen aurkezten bada.

18. Itzulketen araubidea

Aldi berean beste ekarpen batzuk lortzen badira oinarri hauetan ezarritako kasuetatik eta baldintzetatik kanpo, ezarritako betebeharretako edozein betetzen ez bada, edo Tolosako Udalaren Dirulaguntzen Ordenantza Orokorraren 36. artikuluan ezarritako beste edozein kasu gertatzen bada, emandako zenbatekoa deuseztatu egingo da edo itzuli egin beharko da.

Horri dagokionez, Tolosako Dirulaguntzen Ordenantza Orokorraren VI. kapituluaren ezarritakoa aplikatuko da, baita Dirulaguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorrean, uztailaren 21eko 887/2002 Errege Dekretuaren bidez onartutako Dirulaguntzei buruzko Lege Orokorraren Erregelamenduan eta gainerako araudi aplikagarrian ezarritakoa ere.



19. Arau-hausteen eta zehapenen araubidea

Honako hauetan ezarritakoa aplikatuko da: Tolosako Udalaren Dirulaguntzen Ordenantza Orokorren VIII. kapituluari; Dirulaguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Legean; uztailaren 21eko 887/2002 Errege Dekretuaren bidez onartutako Dirulaguntzei buruzko Lege Orokorren Erregelamenduan; eta gainerako araudi aplikagarrian ezarritakoa ere.

20. Aplikatu beharreko araudia

Oinarri hauetan araututako dirulaguntzak honako arau-xedapen hauetan ezarritakora egokituko dira:

- 38/2003 Lege Orokorra, azaroaren 17koa, Dirulaguntzei buruzkoa.
- Emakumeen eta Gizonen berdintasunerako eta Indarkeria Matxistari gabeko Bizitzetarako Legearen testuategina onartzen duen martxoaren 16ko 1/2023 Legegintzako Dekretua.
- Dirulaguntzen Lege Orokorren Erregelamendua, uztailaren 21eko 887/2006 Errege Dekretuaren bidez onartua.
- 179/2019 Dekretua, azaroaren 19koa, Euskadiko toki-erakundeetan hizkuntza ofizialen erabilera instituzionala eta administratiboa normalizatzeari buruzkoa.
- 19/2024 Dekretua, otsailaren 22koa, Euskal Sektore Publikoan euskararen erabilera normalizatzekoa.
- Tolosako Udalaren Dirulaguntzen Ordenantza Orokorra.
- 2023-2025 aldirako Dirulaguntzen Plan Estrategikoa.

BIGARRENA.- Kirol jarduera bereziak antolatzeko dirulaguntzen deialdia onartzea, honako edukiarekin:

I. eranskina: DEIALDIA

1. Xedea

Deialdi honen xedea da dirulaguntza hauen berri ematea: irabazi-asmorik gabeko pertsona eta kirol-entitateei kirol-jarduera bereziak antolatzeko lehia bidezko konkurrentziaren arabera ematen zaizkien dirulaguntzak, betiere jarduera horiek Tolosako udalerrian 2025ean antolatzen badira.

2. Dirulaguntza egozten zaien kreditua eta aurrekontu-partida

Deialdi honetan emateko dirulaguntzen zenbateko osoa hamar mila euro dira (10.000 euro), Tolosako Udalaren Aurrekontu Orokorren partida honen kargura: 1000.481.03.341.00 (2025).

3. Pertsona eta entitate onuradunek dirulaguntza jasotzeko bete beharreko baldintzak



Deialdi honetan argitaratzen diren oinarrien 4. atalean ezarritakoaren arabera.

4. Eskaerak aurkezteko epea

Eskaerak aurkezteko epea 20 egun naturalekoa izango da, deialdia Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu, eta hurrengo egunetik zenbatzen hasita.

5. Eskaerarekin aurkeztu beharreko dokumentazioa

Deialdi honetan argitaratzen diren oinarrien 8. atalean ezarritakoaren arabera.

6. Balorazio irizpideak

Deialdi honetan argitaratzen diren oinarrien 11. artikuluan ezarritakoaren arabera.

7. Proiektuak egikaritzeko epea

Dirulaguntzaren xede diren jarduerak 2025eko urtarrilaren 1etik abenduaren 31ra bitartean egingo dira.

8. Prozedura antolatu, izapidetu eta ebazteko eskumena duten organoak

Kirol Sailak sustatuko du prozeduraren instrukzioa.

Sail horri dagokio eskaeren balorazioa egitea, txosten teknikoa eginda.

Dirulaguntza emateko proposamena Balorazio Batzordeari igorriko zaio, hark dagokion txostena egin dezan.

Honako kide hauek osatuko dute Balorazio Batzorde hori, eta emakumeen eta gizonen presentzia orekatua bermatuko da, bestelakorik justifikatu ezean:

- Kontu-hartzailea edo teknikaria.
- Saileko teknikaria.
- Saileko zinegotzia.
- Idazkaritza Saileko AOT bat.

Instrukzio-organoak, espedientea eta kide anitzeko organoaren txostena ikusita, behin-behineko ebazpen-proposamena egingo du, behar bezala arrazoituta. Proposamen hori interesdunei jakinarazi beharko zaie deialdiak ezartzen duen moduan, eta 10 eguneko epea emango zaie alegazioak aurkezteko, jakinarazpena jaso eta hurrengo egunetik zenbatzen hasita.

Ondoren, Alkatetzara igorriko da, hark, edo hark delegatutakoak behin betiko ebazpena eman dezan

9. Ebazteko eta jakinarazteko epea

Behin betiko ebazpena emateko eta jakinarazteko gehieneko epea sei hilabetekoa da, eskaerak aurkezteko epea amaitzen denetik zenbatzen hasita.

Behin betiko ebazpena interesdunei jakinaraziko zaie.



TOLOSAKO
UDALA

2025DO100006

10. Ebazpenaren jakinarazpena

Interesdunari ebazpena jakinaraziko zaio.

11. Dirulaguntza aldatzea

Deialdi honetan argitaratzen diren oinarrien 17. atalean ezarritakoaren arabera

HIRUGARRENA.- Erabakia dirulaguntzen datu-base nazionalen (BDSNen), Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean, Udaletxeko iragarki taulan, Tolosako Udalaren web orrian eta Gardentasun Atarian argitaratzea.

Ebazpen hauek finkoak dira eta amaiera ematen diote administrazio-bideari. Erabakien kontra, honako errekurtsio hauek jar daitezke:

Erabakien aurka auzitara jo aurretik, interesdunak, hala nahi izanez gero, berraztertze-errekurtsioa aurkez dezake Alkatezaren aurrean hilabete bateko epean, erabakiak argitaratu eta biharamunetik kontatzen hasita. Hori dena, Herri Administrazioen Administrazio Prozedura Erkidea arautzen duen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 123 eta 124 artikuluetan xedatutakoaren arabera.

Bestela, berraztertze-errekurtsioa aurkeztu ordez, edo aipatutako errekurtsioaren erantzunaren aurka joko balu, interesdunak administrazioarekiko auzi-errekurtsioa aurkez dezake bi hilabeteko epean, erabaki hauek argitaratu eta biharamunetik hasita. Helegite hori Donostiako Administrazioarekiko Auzien Epaitegian aurkeztu beharko da.

Era berean, berariazko ebazpenik ez badago, bai prozedurari amaiera emateko edo bai berraztertze-errekurtsioari erantzuna emateko, interesdunak administrazioarekiko auzi-errekurtsioa aurkez dezake, edozein unetan. Helegite hori Donostiako Administrazioarekiko Auzien Epaitegian aurkeztu beharko da.

Alkateak agindu eta izenpetua, eta nik, Udal Idazkari naizen honek, ziurtatua, Tolosan, sinaduran agertzen den datan.

ALKATEA

UDAL IDAZKARIA

Angel Martinez de Rituerto Arregi

Sara Berasategui Fuertes



Sinaduren laburpena / Resumen de firmas	
Titulua / Título:	2025DO100006-DK_oinarriak_onartzeko_lehia/DC_aprobar_bases_competitivas (UDALA)